

Sagarrondotik jaialdia ekainera arte luzatuko da

► Xabier Euzkitze bertsotan arituko da 'Txootx!' ikuskizunean

ANE URDANGARIN

URNIETA. DV. Sagarrondotik festaren hirugarren edizioa erabat indarberrituta dator aurten. Jaialdiak formato berria estreinatuko du eta ekitaldi guztiak asteburu bakarrean bildu ordez, martxotik ekainera arte luzatuko dira. Musika kontzertuez gain, herri kirol lehiaketa eta sagardo mostra ere egingo da. Jon Mayaren *Txootx!* ikuskizunak Xabier Euzkitze berriro taula gainean bertsotan ikusteko aukera ekarriko du. Azken bi urteetan bezala, Urnieta, Hernani, Usurbil eta Astigarraga inguruan burutuko dira ekitaldiak. «Kultur expresioak bul-tzatzeaz gain, gazteentzako bilgune berezi bat bihurtzea nahi genuke», adiera du Jon Garmendia, Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak bozeramaleak.

Sagarrondotik 2005 martxoaren 4 eta 5ean hasiko da, gazteentzako kontzertuekin. Hernanin hamar bat mila lagun biltzeko bi karpa erraldoi jarriko dira, oraindik zehazteko dagoen leku batean. Tiloen inguruan txosnak ipintzeko asmoa dago, eta frontoian parke tematiko bat, sagardo kupel eta mahaiekin. Musikari dago-kionez, ostiralean, 22:00etatik aurrera, The Wailers, Bob Marley zenaren taldea, Def con Dos, Kauta eta zehaztear dagoen beste talde esanguratsu bat arituko dira.

EGITARAUA

► **Martxoak 4:** The Wailers, Def con Dos eta Kauta-ren kontzertua Hernanin. Oraindik zehaztu gabe dagoen beste talde bat arituko da.

► **Martxoak 5:** Marea, Berri Txarrak, Martires del Compas, Barricada eta Sociedad Alkoholikaren kontzertua Hernanin.

► **Martxoak 6:** Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Herniko ordezkariak lehia herri kirolean. Bertsolari, talogile, txistulari...ekin jaialdia. Dena Urnietan.

► **Martxoak 12:** Jon Mayaren *Txootx!* ikuskizuna Astigarrako Oialumen.

► **Apirilak 16:** Benito Lertxundiren kantaldia Hernanin.

► **Malatzak 28:** Herri kirol lehiaren errebantxa Usurbilen.

► **Ekaina:** Euskal Herriko Sagardo Mostra.

Larunbatean 21:00etan hasiko dira kontzertuak. Marea, Berri Txarrak, Mártires del Compás, Barricada eta Sociedad Alkoholika arituko dira.

Martxoaren 6an Urnietan egingo da jaia. Talogileak, txistulariak, bertsolariak eta Buruntzaldeko sagardogileen mostra txiki bat egingo da. Eguerdian, Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko ordezkariak herri kirolean neurtuko dira.

Martxoaren 12an, *Txootx!*, dantza, bertso eta musika ikuskizuna aurkeztuko da Astigarrako Oialumen. Ikuskizuna Jon Maya dantzariak sortu eta gidatzen du. Aspaldidanik telebista munduan erabat murgilduta dabilen Xabier Euzkitze berriro ere bertsotan ikusteko aukera izango da. Anjel



Urnietako alkatea eta Jon Garmendia hiru herrietako herri kirolen ordezkariak. (LUIS MICHELENA)

Mari Peñagarikanorekin arituko da. Hauez gain, 25 dantzari eta Aiztondo abesbatza bilduko dira Oialumen. Ikuskizun hau urte osoan zehar Euskal Herriko hainbat lekutan aurkeztuko da. Ekitaldi honetan banatuko da Sagardoaren Mezulariak ikurra. Juan Gorritik diseinatu duen ikur horretan langa edo ataka bat agertzen da, brontzekoa, eta sagastiko sarrerako langa sinbolizatzen du. Iaz Real Sociedadeko jokalariei eman zitzaizen eta aurten Bertsozale Elkartek jasoko du.

Apirilaren 16an Benito Lertxundik kantaldia eskainiko du Hernanin, eta maiatzean herri kirolen errebantxa egingo da.

Ekainean, oraindik finkatzeko dagoen egun batean, Euskal Herriko Sagardo Mostra egingo da. Antolatzaileek diotenez, lehen aldiz, Gipuzkoako sagardo naturalaren elkarrekin elkarlanean ospatuko litzateke jaia. «Asmoa, Euskal Herri osoko sagardoak bildu eta haiek denak dastatzera ematea da».

Un festival cada vez más grande

A.U.

Urnietan, Usurbil, Astigarraga y Hernani volverán a acoger, por tercer año consecutivo, el festival Sagarrondotik, que en esta edición cambia de formato. En vez de un fin de semana, los actos se alargarán hasta junio, y finalizarán con una muestra de sidra del País Vasco.

Sagarrondotik se iniciará el 4 y 5 de marzo con una serie de conciertos que se celebrarán en una gran carpa instalada en Hernani. Entre otros actos, destaca la presentación del espectáculo *Txootx!*, que escenificará el 12 de marzo en la sala Oialume de Astigarraga. Creado y dirigido por el bailarín Jon Maya, el espectáculo supondrá la vuelta a los escenarios de Xabier Euzkitze, destacado bertsolari que últimamente ha centrado su carrera en la televisión.